

EUSKAL HERRIKO ITSASARGIAK




Euskal Herriaren nortasuna bai geografian bai izaeran binomio baten isladatzen da: ur eta lur, mendi eta itsaso, lehor eta busti, nekazari eta arrantzale. Euskal gizonak, lurrean sendo finkatuta egon arren, beti izan du itsasorako joera bizia. Nahiz barealdian lanean edo eta ekaitzekin borrokan, betidanik atera du itsasoan zehar burutu ditu bere balentriarik sonatuenak.


Eta bitartean hor daude kostalde osoan sakabanatuta itsasargiak. Batzuk harrizko eraikuntza dotoretan kokatuta, besteak etxe txuri disdiratsuen etxaburu, denek mendi gailurretan munduari keinuka, itsasgizonen eta marinelen zaintzaile, itsasontzien gidari eta babesaren ate, baleak ikustatzeko talai, urrutitik datozen arriskoen igarle.

Hara hor bada, Euskal Herriko itxasargien bilduma. Zalantzarik gabe, gure ondarearen zati bat dira. Bakoitzak bere kokapena eta mezua aukeratu du, bakoitzak bere nortasuna era berezian agertzen du. Uste dut merezi duela unetxo batez be-
raiekin gozatzea.


Juan Mari Arrizabalaga




1.- ALGORTAKO KONTRAKAIKO ITSASARGIA. Argi gorria, bi distirako argi-multzoetan, 6 segundoz behin, 10 milia arte ikus daitekeena. Algortako semeak, Delmasek zioenez “Bilbora nabigatzen duten untzietarako praktikoak eskaintzeko eta Abran arazotan daudenei laguntzeko lan nekeza bezain garrantzitsuan aritzen dira”, eta hala izanik, bitartean, argidorre eta etengabeko zelatari den itsasargia guardian dago bere mezuak igorritz, batzuetan larritasunez bustitakoak, beste batzuetan ongi etorri beroa emanez.




2.- PUNTA GALEAKO ITSASARGIAREN AURRIAK. 1640. urtean, Bizkaiko Jaureriak Punta Galean bi talaiak jartzea erabaki zuen, Frantziako itsas flota hurbiltzen zenean abisu emateko eta era berean balearen arrantzarako. Gaur, bere aurrien leihotik, herri handi baten bizitzaren ardatz izan den eta ardatz izaten jarraituko duen portu baten eraldaketaren lekuko mutu eta atsekabetua da.




3.- MATXITXAKO LURMUTURREKO ITSASARGIA. Distirako argi zuria, zazpi segundoz behin, 35 milia arte ikus daitekeena. Itsasoratzen diren marinel adoretzuak zelatatzeko irrikaz, itsasargi paregabe hau beste edozein baino gehiago barneratzen da uretan, Burgoa mediaren bizkarraren gainean, Bermeoko arrantzaleen talaia berarekin daramala.




4.- LEKEITIOKO SANTA KATALINA PUNTAKO ITSASARGIA. Distirako argi zuria, 4 ssegundoz behin, 13 milia arte ikus daitekeena. Itsasargiak untzi zela amets egin zuen eta amarrak askatu zituen, eta amarra horiekin babesteko sarea ehotu ondoren, itsasoan barneratu zen, arrantzaleen lana argitzeko, ekaitzak jotzen zuenean arrantzale haiek argiztatzeko eta etxera onik eta osorik ekartzeko.




5.- ZUMAIAKO KAI-MUTURRA ETA ITSASARGIA. Talaiaren muinoan, itsas mailatik 41 metrora. Argi zuria, 20 segundoz behin 1n eta 3tan ezkututzen diren argi-multzoetan, 16 milia arte ikus daitekeena. Marinela itsasoaren bila badabil, itsasgizonak burua lurrean jarrita du. Bere itsasargiaren begi-keinu kutunak, bere kai-muturraren baitan itsasoa baretuz itsasoa bera biltzen duten harriak eta itsasoa eta lurra, marinela eta familia uztartuko diren amarratzearen besarkada begizatuko ditu.




6.- SAN ANTON IRLAKO ITSASARGIA, itsas mailatik 89 metrora. Getaria (XIX. mendea). Argi zuria, 10 segundoz behin 3tan ezkututzen diren argi-multzoetan, 15 milia arte ikus daitekeena. Itsasoaren bihotzean sortzen diren argi, arima eta sua, balearen arrantzan itsas otsoaren bokazioa, merkataritza-nabigazio eta itsas armadaren zelatari eta babeslekuaren bokazioa, eta lurberan zehar balentria ahaztezinak egin dituzten abenturazalearen bokazioa duen herri baten bizitzaren gain irudikatzeko.




7.- DONOSTIAKO IGELDO MENDIKO ITSASARGIA. Argi zuria, 1 eta 2 distirako argi-multzoak 15 segundoz behin, 30 milia arte ikus daitekeena. Hasierako Donostiako itsasargia Motako Gazteluan jarri zuten 1515. urtean. Aurrerago, Igeldo mendiko gailurrera jauzi egin zuen 1778. urtean. Ondoren, 1864. urtean Santa Klara irlan eta Igeldoko magalean jarri zuten, eta azkenik gailurrekoa berreraiki zuten 1858. urtean. Horrenbestez, itsasargia mendiz mendi jauzika ibili dela esan daiteke, hain ikuspegi ederreraiko kokapenik egokienaren bila.




8.- PLATA LURMUTURREKO ITSASARGIA porturako sarrerako mendebaldean kokatua. 2 segundoz behin ezkututzen den argi zuria, 20 miliako irismena. Mende honen hasieran bi itsasargi zeuden Pasaian, Platakoa (148 metrora) eta Senoko Zuloakoa, Pasaiarako sarbide estutik sartu nahi zuten untziak gidatzen zituena. Merkantzia-untzi ugariren sartzearen lekuko izan dira, eta sarrera erraztuz hartzen zituzten, tirain, ekaitz eta uholdeen babesera aterpea eskainiz.




9.- HONDARRIBIKO HIGER LURMUTURREKO ITSASARGIA. Itsas mailatik 60 metrora eta 1916. urtean 16 itsas milia arte iristen zen fokua zuena. Distira zuriko argi-multzoak 60 segundoz behin, 22 milia arte ikus daitezkeenak. Ondo ondo nauta erromatarrek, Gaztelako alabardariak, Nafarroako merkatariek, gertari normandiarrek eta baionesek, arrantzale gogorrek eta abar idatzitako orriak dituen herri baten historiaren liburua argizatzen duen argia.



10.- SOKOAKO ITSASARGIA, ZIBURUN, LAPURDIN. Argi zuria, 12 segundoz behin 1n eta 2tan ezkututzen diren argi-multzoak, 16 milia arte ikus daitekeena. Sokoako gotorleku eta dorrearen ondorengo duin eta modemoa, XVIII. menderako jada arrantzalei babesa eskaintzen ziena, batez ere arrantzalea den herri honetan, “Europako onenen artean aintzat hartuta dauden marinelei, ausarkeriara iritsi arte adoretuak direnei eta Donibane Lohitzunerako bidean ekaitzak jotako untziei laguntza ematen dietenei, alegia”, eskainitako monumentu dotore eta sofistikatua.



II.- SAN MARTIN PUNTAKO MIARRITZEKO ITSASARGIA. 2 distira zuriko argi-multzoa, 10 segundoz behin, 27 milia arte ikus daitekeena. Bale-arrantzaleen herri idiliko batek moda eta luxuzko enklabe ederrean jai eta azpikerien, enbata eta amodio eztien, abenturen eta hondoratzeen lekuko izan duen eraldaketa argitu duen kandela.



12.- BAIONAKO PORTUKO ITSASARGIA ETA BEHATOKI METEOROLOGIKOA. Aturriren bokalean ozeanoarekin mugakideak diren uren elkartze barea zelatzen duen zaintzailea, suntsitutako zubien zuinak gaindituz Euskal Herriak milurteko berrian Europarekin izango dituen loturak finkatuko dituen aingura.